

... eta jaki ekologikoak soilik jango bagenitu?



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Esperimentua egin du Japoniako Greenpeacek bi familiarekin: hamar egunez, jaki ekologikoz soilik osatutako dieta jarraitu dute partaideek. Nola eragin ote du horrek beren osasunean?

Sustantzia kimiko gutxiago gure gorputzetan

Nekazaritza konbentzionalean oso erabiliak diren pestizidetako sustantziek (glifosatoa, neoinotinoideak, piretroideak, eta abar), ingurumena kaltetu ez ezik, gure gorputzetan amaitzen dute barazkiak jandakoan. Azken urteetan egindako ikerketa askok lotu dituzte sustantzia horiek arazo neurologiko, garapen kognitiboko atzerapen edota kantzerra bezalako osasun arazoekin.

Greenpeace azterketako emaitzek, esperimentuko partaideen organismoetan pestiziden presentzia nabarmen jaitsi dela erakutsi dute. Batez ere pestizida organofosforatuetatik eratorritako elementu kimikoen, piretroideen eta glifosatoaren presentzia da gutxitu dena: DAP gernu-dialkilstatoa (hainbat organofosforaturen degradaziotik eratorria) litroko 100 mikrogramotik 20 mikrogramo baino gutxiagora jaitsi da, adibidez.

Hamar eguneko esperimentu laburra izan dela kontuan hartuta, esanguratsuak dira datuak, adituen ustez.

Garrantzitsua, bereziki haurrentzat Nekazaritza ekologikoko jakiak hartzea edonorentzat bada onuragarri, esperimentuko egileek haurren elikaduran ja-



Japongobifamilia hauek hartuzuten parte 10 egunezelikagaiekologikoasoilikjatekoikerketan.

rri nahi izan dute fokua, batez ere. Izan ere, produktu kimiko eta toxikoek kalte gehiago eragiten dizkie haurrei, garapen batean daudelako.

Gorputzeko pestiziden gutxitzea, ordea, ez da %100 jaki ekologikoak hartzearen onura bakarria izan, parte hartzaileen arabera: "Honek bizimodu geldoagoa gozatzeko aukera eman dit. Jakiak guk geuk prestatzera behartu gaitu, aurretik prestatutako janari ekologikorik ez baitago, eta horrek familian, elkarrekin momentuak konpartitzeko eta horrekin gozatzeko aukera eman digu".¹

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Urtarrilak 21: Arrasate
Azoka

Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza produktuen salmenta.

Urtarrilak 23: Otsagabia
Jakoba Errekondoren hitzaldia
Herriko eskolako kideentzat, 17:00etan.
Eta ondoren guztiei irekia (18:30 aldera)
Bizi Baratzea liburuaren aurkezpena.

Urtarrilak 23: Zizurkil
Baratzegintza Ekologiko Ikastaroa
Izena emateko epea urtarrilaren 18 arte,
943692166 zenbakira deituta edo
fpfraisoro@hazi.eus helbidera idatzita.

Urtarrilak 24: Barakaldo
Azoka
Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta.

Urtarrilak 28: Audio
Txerriaren azoka
Txerria erre eta garbitzea eta odolkiak egitea. Txarripata sukaldaritza lehiaketa ere izango da nekazaritza eta eskulangintza produktuak erosteko aukera.
Erromeriak girotuko du eguna.

Urtarrilak 28: Elgoibar
Azoka
Ganaduaren eta nekazaritza tresnen erakusketa eta salmenta.

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

Agenda osoa noiznahi ikusteko:
www.bizibaratzea.eus